



MUSIKA

Musika Hamabostaldi freskoa

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Garai zailak bizitzen ari gara denerako, baita, eta agian bereziki, kulturarako ere. Distantzia egokiei eustea eta osasun-agintarien gidalerro guztiak betetzea oso zaila da leku itxietan, jende asko dagoenean. Eszenatoki baten gainean orkestra oso batek, edo abesbatza handi batek, osasun publikorako apustu arriskutsuak dirudite.

Horregatik guztiagatik, Musika Hamabostaldiaren antolatzaileentzat ez da erraza izan aurten programa egitea, aurretik programatuta zegoenaren orde. Hala ere, ekainaren amaieran, azkenean, publiko egin zen programa hau, non bertako artistek eta talde txikiek protagonismoa duten. Zalantzarik gabe, ahalegin handia egin da, eta horregatik, jendearen arreta merezi du. Aurten, kosta ahala kosta, Donostiako Musika Hamabostaldiaren 81. edizioa dugu. Haize freskoa izango da, hilabeteetako sufrimenduaren ondoren.

Lerro hauen bidez, saiatuko naiz zuentzako gomendio batzuk egiten. Zalantzarik gabe, programatutako kontzertu guztiek xarma eta kalitatea dute edukien eta interpreteen ikuspegitik. Baina beti aipa ditzakegu nire ustez ezinbestekoak diren saio batzuk. Programa osatzen duten zikloetako bakoitzean, oharkabea igaro behar ez diren benetako harribitxiak aurki ditzakegu.

Kursaal Auditorioaren zikloan, lehen kontzertua abuztuaren 8an izango da, Euskadiko Orkestraren eskutik, Semyon Bychkoven zuzendaritzapean. Ziur aho-zapore ona utziko digula, Beethoven-i eskainitako programa batekin. Era be-



MUSIKA HAMABOSTALDIAN IZANGO DA EUSKADIKO ORKESTRA. ABUZTUAREN 8AN JOKO DU KURSAAL AUDITORIOAN, DONOSTIAN.

rean, ez nuke Grigory Sokolov pianistaren errezitaldia galduko hilaren 16an, Mozart eta Schumannen lanekin.

Topaketa interesgarriak izango dira San Telmo Museoan. Besteak beste, Euskal Herriko Gazte Orkestraren kontzertua izango da abuztuaren 1ean, egitarau bariatu eta zirraragarriarekin. Eta hilaren 17an, Gerhard Laukotearen kalitate handiak arrastoa utziko du entzuleengan, musika garaikideko emanaldi batekin.

Aurten, gainera, agertoki berri bat

izango dugu, Tabakalera eraikina hain zuzen ere. Bertan izango diren ikuskizunen artean, Juan Laboreria baritonoaren errezitaldia nabarmenduko nuke, Javier González Sarmiento pianoan duela. Opera, zartzueta, euskal kantua eta frantses kantua interpretatuko ditu. Oso erakargarria, beraz.

Baina gogoratu hauek gomendio batzuk baino ez direla. Kontzertu guztietara edo gehienetara joaterik baduzue, uda musikal bizia biziko duzue, dudarik gabe. ●